

Bizitza dohakabeak

Alex Gurrutxaga

Duela hiru urteko Igar-tza beka dela medio kaleratutako *Beste norbaiten zapatak* ipuin liburuaren ondoren, Garazi Kamiok bigarren lana argitaratu zuen iaz, *Orube abandonatuak*, 2013an irabazitako Augustin Zubikarai sariari esker.

Testuari heldu aurretik, derri-gor esan behar dugu zerbait paratuetuari buruz. Itxaso Arakeren *Damutzen ez diren* liburuaren (2012) kontrazalean hura egilearen lehen eleberria zela esaten zen bezala, kasu honetan ere esaten zaigu Garazi Kamioren lehen eleberria hartu dugula eskuetan. Gauza jakina da nobela modernoaren definizioa oso irekia dela, baina guztiak dauka muga bat, eta *Orube abandonatuak* ez da eleberria. Ulergarria izan daiteke lan bat nobelak daukan itzal handian sartu nahi izatea –eta ez da-

kit nor den halako erabakiak hartzen dituen –, baina hautua kontra etor daiteke, irakurlea engainatua senti daitekeelako.

Hiru narrazioi osaturiko testua da Kamiorena, eta hirurak zati-takatuta eta txandaka ematen zaizkigu, zortzi partetan bakoitza. Egitura fragmentario horren



'Orube abandonatuak'

Egilea: Garazi Kamio.
Argitaletxea: Elkar.

arrazoi testualik, ordea, ez da azaleratzen; gauzak horrela, hautuak, eskasegi nobela izaera justifikatzeko, alferrikako nekea eragiten dio irakurleari, eta narrazioen kaltean jokatzeko du.

Izan ere, narrazioak jarraian irakurriz gero –bakoitzaren zortzi atalak lotuz, alegia–, jabetuko gara aski txukunak direla hirurak. Narrazio bakoitza garai batean kokatua dago, baina espazio antzekoetan. Lehenak gerraostean preso egotetik etxera doanaren egoera du hizpide. Mario bere lekua aurkitu ezinik dabil, eta itzulera ezinezkoa gertatzen zaio. Bigarren narrazioak Miren du protagonista, heroinaren garai ilunenean tentaldian erori eta hondoa jota bukatzen duen emakumea. Azken narrazioko protagonistak, Maiderrek, gezurrezko bizitza ideal bat asmatu du, eta bere ingurukoak eta bere burua engainatzen ditu.

Istorio guztietan protagonistek arazo larriak daukate, eta horiei kontra egiteko bakarrik sentitzen dira: euren buruekin adiskidetu ezinik dabilta –ispiluan ikusten dutena onartu ezinik–, eta ingururekiko loturak ere hautsita daukate. Abandonatutako orubeak bailiran, barrutik hutsik eta

besteen ahanzturan galduta daude, eroriak euren baitako egoitzan –hortik etxean garrantzia espazio intimo gisa–, bere lekuan bermatua dagoen ororengandik urrun, deserriatuak. Deserri existentziala da, hain zuzen, liburuari batasuna ematen dion ideia nagusia –badaude beste keinutxo konstante polit batzuk ere: leku batzuk, egun bat, objektu zenbait–; tradizio ezin luzeagoko gaia da erbestearena, eta pena da berau gehiago fiabartu eta sakontu ez izana.

Azpmarratzekoa da pertsonaien karakterizazioa: dohakabeak dira, hondoratuak, eta ongi deskribatuta daude. Horri lotuta, kontatutako istorioek, euren gogortasunean, badute indar iradokitzailea, eta idazleak nabarmen bilatu du sentsazio zenbaiten transmisioa: itomena, tristura, nazka, eta abar. Alabaina, hori guztia ez da nahikoa liburuari goian eutsi ahal izateko: egitura haustiaren eragozpenaz gain, kontamoldeak lauk dira, istorioek tentsioa eta sakontasuna falta dute, eta biraketa behartuak agertzen dira narrazioak ixterakoan. Literatura gutxitxo beharbada, nahiz eta oso ongi irakurtzen diren narrazioak izan.



'Txantxanberde kantaria'

Egilea: Joan Mari Irigoien.
Argitaratzailea: Joan Mari Irigoien (egile editore).

Egileak «Altzako herri-dese-rrari» eskaini dio poema liburu hau, eta egun deserria dena «herri bihurtzeko aro berri bat» ez ote den iritsi galdetzen du kontrazalean. Liburu honekin, altzatrekin bat egin nahi izan du Joan Mari Irigoienek, baina liburu ez da soilik Altzari buruzkoa.



'Espedizioa. Mendi ororen pisua'

Egilea: Juanra Madariaga.
Argitaletxea: Txalaparta.

Shisha Pagma mendiko gailurrera Unai Elorriagaren *SPrako tranbia* eraman zuen Juanra Madariagak 2010ean. Goi mendietan izandako esperientzien berri eman du liburu honean, irakurleari kontatutakoekin ere ezik kontatzeko moldearekin ere plazer ematen saiatuz.



'Oroit hadi'

Egilea: Pierre Mestrot.
Argitaletxea: Maiatz.

Nobela poliziakoa da hau, eta egile beraren aitzinako nobeletako Etxehori kapitainaren beste inkesta baten berri ematen du. Aurretik *Saiaren mendekua* eta *Arimen ohoina* nobelak ditu argitaratuak Mestrotek, biak Maiatzen eskutik, 2011 eta 2013an hurrenez hurren.

Gurasoak bananduta daude

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Inanol Mercero

Tristura aitortzea izaten da berau gainditzeko urrats baliotsu bat. Samina, gatazka eta antzeko bihotz urragarriak nonahi topatuko ditugu, baita haurren artean ere. Ekidinezinak dira, eta onena eman behar da zulotik irteteko, baina unea iris-tean altxatzen lagunduko digun eskua zain topatuko dugu.

Hauxe da, asko behartuta, eta are lizentzia gehiago hartuta, Castillo Suarezek orain arte idatzi dituen zazpi obretan behin eta berriz adierazten zaigun mezua.

Suarez idazle iraunkorra da, ez bakarrik mezuetan, baizik eta bere ezaugarri guztietan, *Agur, Agur!* liburuan aurrekoetan agertzen zituen baliabide eta ezaugarriak topatzen ditugu. Eta

agian oinarrizkoen den ezaugarria da irakurtzeko erraza dela.

Hamabost atal laburrez osatutako kontaketa da, idazmolde irakurterraza du, adierazkorki osatuta, eta ongi josia. Ez naiz lausenguen zalea, baina bertute bihurtzen du sinpletasuna, aberastasunarekin hornituta.

Protagonista narrazioa da, eta haren bakarriketan murgil-



'Agur, Agur!'

Idazlea: Castillo Suarez. Ilustratzailea: Morkots. Argitaletxea: Erein.

tzen gara, elkarrizketa gutxi batzuekin. Honek pare bat zalantza sortu dizkit, alderdi tekniakoari erreparatuta. Batetik liburuaren mezuaren hartzailearen afera dago: nori komeni zaio jakitea haurren ikuspuntua banaketa baten inguruan? Ez da liburu hau haurren ikuspuntua helduei helarazteko modu bat? Ez da hau helduen haur literaturaren adibide bat?

Bestetik narrazioa dago. Aukeraturik protagonista narrazioa gisara, zortzi bat urteko haur baten ahotza irudikatu behar dugu, baina kasu honetan hain arrazional eta eraginkor agertzen da ezen mari-jakintsu baten aurrean jartzen gaituen, agian artifizialeki gertatzen dena.

Bi zalantzak lotuta ikusten ditut, narrazioa orojakile batek halako arazoak saihesteko lituzkeela iruditzen zait (hau idaztean Janosch-en *Zein polita den Panama!*-ko narrazioa dut gogoan), haurri haur izaten utziko liokeena, eta helduentzako hausnarketak bigarren maila-

ko irakurketetan mozorroturik joango lirakeela...

Narrazioa estatikoa da, ez dago kontaketa haria daraman ekingitza nagusi bat, aitzitik egoera jakin batean dagoen haur baten erretratua eskaintzen zaigu. Nahiz eta, jakina, ekingitza txiki batzuen berri izaten dugun. Kontaketa tristea da oro har. Denera dituen hamabost ataletatik, zortzitan triste dago protagonista, beste lau ataletan aldarte gorabeheratsuak bizi ditu, eta, gutxitan, bereziki amaiera aldera, poza ere sentitzen du. Datuak gutxika gehitzen dira, gai nagusia (gurasoen banaketa) eta eguneroko bizitzaren zer-nolakoak tartekatuta. Hala eginez protagonistak gorputza hartzen du, eta egiantza irabazten.

Idazle iraunkorra dela esan dugu arestian, eta asmo onekoa dela ere gehitu daiteke, haurrak gozatu eta lagundu nahi dituen horietakoa. Baina agian Castillo Suarez-en baliorik handiena literatura egiteko gogoia da, hain ohikoa ez dena, bestalde, gure artean.